

1- ENTZUN AURRETIK

1.1 Hau bai aspergarria!

 Jarri binaka eta egin galdera hauek zure lagunari eta apuntatu bere erantzunak.

Zerrendatu toki aspergarriak. Adibidez:

- Aireportuak
- Kirol ekitaldiak
- Jazz kontzertu bat
- ...

Inoiz alde egin duzu toki batetik aspertuta zeundelako?

Zein tokitatik? Aukeratu adibide hauen artetik:

- Hitzaldi batetik
- Zinematik
- Kontzertu batetik
- Liburutegi batetik
- Futbol-partida batetik
- ...

Zer dela eta? Eman arrazoiak

- oso luzea
- erritmo motelekoa
- aktore txarrak ...



 Komentatu taldean lagunak emandako erantzunak, eta ondoren hartu oharrak. Hemen adibidea:

Anek behin oso aspertuta liburutegitik alde egin zuen. Liburutegiak eta hegazkinak oso aspergarriak iruditzen zaizkio. Eta Amona pelikula ere oso aspergarria eta motela iruditzen zaio, pelikula oso luzea delako.

2- ENTZUN BITARTEAN

2.1 Hau al da Danimarkako filmik onena?

 Entzun elkarrizketaren lehen atala bi aldiz. Bigarren aldian, entzun bitartean aukeratu egoeraren laburpen zuzena:

Amaia eta Josu zinema-atarian daude, baina Josu aspertzen ari da. Danimarkako filma bat botako dute, baina Josuri ez zaizkio Danimarkako filmak gustatzen

Amaia eta Josu filma bat ikusten ari dira, baina Josu aspertzen ari da. Danimarkako filma bat ikusten ari dira, eta Josuri oso motela iruditzen zaio.

Amaia eta Josu filma bat ikusten ari dira, baina Amaiari ez zaio ona iruditzen. Josuk isiltzeko esango dio, baina Amaia aspertzen ari da.

Orain jarri binaka eta adostu erantzun zuzena. Ondoren, zuzendu beste bi aukeretako gezurrak.

2.2 Isilduko al zarete?



Une bakoitzean zein egitura edo esapide erabiltzen da, audioan? Elkarrizketa osoa entzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena. Alderatu erantzunak zure lagunarekin.

<p>Josuk aspertzen ari dela esan dio Amaiari eta honek berehala hau erantzun dio</p> <p><input type="checkbox"/> Utzi ikusten bai?</p> <p><input type="checkbox"/> Zuk etorri nahi zenuen zinemara.</p> <p><input type="checkbox"/> Oso ona da eta!</p>	<p>Josuk pelikulari buruz hau pentsatzen du</p> <p><input type="checkbox"/> Danimarkako filmik onena da.</p> <p><input type="checkbox"/> Azpigituluak irakurtzea garrantzitsua da.</p> <p><input type="checkbox"/> Motela eta aspergarria da.</p>
<p>Josu filmari buruzko komentarioak egiten ari da. Ikusle batek haserre hau esan dio:</p> <p><input type="checkbox"/> Isilduko al zarete behingoz?</p> <p><input type="checkbox"/> Isildu edo zoaz kanpora.</p> <p><input type="checkbox"/> Zoaz pikutara!</p>	<p>Josuk Amaiari ea badatorren galdetu dio, eta Amaiak oso haserre:</p> <p><input type="checkbox"/> Gustura ez bazaude, zoaz kanpora.</p> <p><input type="checkbox"/> Zoaz pikutara!</p> <p><input type="checkbox"/> Lotsagabea!</p>

3- ENTZUN ONDOREN

3.1 Benetan ez du merezi!

Balorazioak egiteko (film bati buruz)

Merezi du/ Ez du merezi film hau ikusTEA

Nire ustez oso motela da.

Nik uste dut ederra dela.

Nolakoa? Barregarria-tristeia/ interesgarria-aspergarria




Beldurrezko filma/ barre egitekoa/ maitasunezkoa



Entzun duzun istorioaren amaiera bat hau izan daiteke: Josuri ez zaio filma gustatu eta atera denean lagun batzuekin topo egin du zinema-atarian. Hurrengo ariketan binaka antzeko elkarrizketa bat sortuko duzue. Lehenik irakurri ereduak:

- *Aupa Josu! Zer egiten duzu hemen?*
- *Film bat ikusten egon naiz, 3. aretoan. Uf, benetan aspergarria zen*
- *Zein, Danimarkako film berri hori? Ba, kritika onak jaso ditu. Eta, merezi du ikustea?*
- *Niri ez zait batere gustatu. Ez du merezi film hau ikustea, nahiko motela da eta gainera, jarraitzeko azpigituluak irakurri behar dira.*

3.2 Merezi du film hau ikustea?

   Zu antzeko egoeran zaude. Hemen hiru filmetako kartelak. Aukeratu horietako bat edo gogoratu ikusi duzun film interesgarri edo aspergarri bat. Sortu goiko ereduaren antzeko elkarrizketa, film horrek merezi duen edo ez adieraziz. Arrazoiak beheko taulatik aukeratu ditzakezu.





Filma ona da: arrazoiak

- Filma interesgarria da eta kritika onak ditu.
- Aktore onak dira.
- Gidoi oso ona dauka.
- Istoriopolita (interesgarria) kontatzen du

Filma txarra da: arrazoiak

- Filma nahiko motela eta aspergarria.
- Bukaera txarra /tristea dauka.
- Aktoreak, gidoia txarrak dira.
- Istoria oso txarra da, gaizki kontatuta.

  Orain taldearen aurrean, binaka sortu duzuen elkarrizketa antzetzutu. Ondoren, film hori ezagutzen duzuenak eman iritzia besteek esandakoari buruz. Eta erabaki denon artean zein den denetatik filmik onena. Ikus eredu:

- Ados nago Ane eta Jonekin, nik ere uste dut "Mcbeth" filmak ez duela merezi, nahiko motela eta aspergarria da
- Ba, ni ez nago ados zurekin. Film horrek amaiera tristea du, bai, baina istorioa oso ondo kontatzen du eta aktoreak onak dira. Hortaz, nire ustez merezi du ikustea.